

75 urte Euskaltzaindiak. XIII. Biltzarra

Iragan urrilean, 3tik 7ra bitartean ospatu da Euskaltzaindiaren XIII. Biltzarra, Euskal Herriko Unibertsitatearen Leioako campusean.

Biltzar honek sortu zuen arrakasta, inork espero zezakeena askoz gainditu zuela esan behar. Leioako Areto Nagusia, leporaino bete zen egunero Euskaltzaindiak antolatutako hitzaldi, txosten eta azterketa lanak entzuteko eta eztabaidateko. Zoragarria benetan bertan ikusi izan dugun partaidetza.

Lehenengo egunean Euskaltzainburu den Jean Haritschelhar jaunak egin zuen ongi etorria honako hitzekin: "Arantzazu, Bergara, Leioa.... Euskara batuarekin lotuak diren herri eta hiri izenak dira. Lehen biak ezagutuak dira jadanik. Hirugarrena Euskaltzaindiak deitu ditu euskaltzaleak, Euskal Herriko Unibertsitatean antolatua den XIII. Biltzar Nagusira. 75. urteurrenaren ospatzeko Euskaltzaindiak eskaintzen dio Euskal Herriari euskara baturako bide luzean urrats bat gehiagoren egiteko parada. Hor-

tarako prestatu ditu, batzordeen bitartez, zortzi lan handi biltzarrean eztabaidatzeko. Eskerrik beroenak merezi dituzte batzordekide guziek eta denbora berean bihurtzen dizkiet eskerrak txostengileei.

Orotara 350 jendek izena eman dute biltzarrean parte hartzeko. Kopuru horrek erakusten du zer arrakasta daukan Euskaltzaindiak.

Biltzarkide guztiei, EHUko areto nagusian bilduko diren guztiei, biotz-bihotzez doa ene ongi etorririk kartsuena.

Ondoren, egitarauaren arabera eta antolakuntza bikain bati atxikiaz azaldu ziren pertsonaiak eta lanak, aipagarriak izan zirela esan behar. Batzuk besteak baino sakonagoak izanik ere, orohar, oso maila handikoak izan ziren.

Lehen egunean eta lehenengo hizlaria Aita Luis Villasante. 74. frantziskotar gernikarra izan zen. Euskaltzainburu izana 1977-1988 urteen artean. Honen agintaldian egin da euskararen bata-

sunerako lanik handiena, Euskaltzaindia egituratu eta legeztatu, lan-taldeak eta batzordeak sortu eta erakundearen dirubideak ziurtatu dira. Doktore teologian, gai asko jorratu ditu bere lanetan (*Angeles Sorazu...*) Axular (*Geroren argitalpena, Axularren Hiztegia...eta euskara batua, (Hacia la Lengua Literaria Común, Estudios de Sintaxis Vasca....)*) batez ere.

Aita Luis Villasante Euskara batuaren filosofiaz eta premiaz mintzatu zitzaigun. Egungo beharrak aztertu zituen eta etorkizunari begira hartu beharreko neurriak. Frantziskotar honek Mitxelena Arantzazun irakurritako lana goraiatu zuen, hura izan baitzen batasunaren hasierako ardatz nagusia. Ez zituen gai korapilatsuak baztertu eta H letraren inguruan sortutako iskanbilak ere mintzagai izan zituen, baita Arantzazuko Biltzarren agiria- ren gainean sortutako duda-mudak edota Bergarako Biltzarrean gero hartutako erabakiak ere.

Ondoren Pello Salaburu, 42, hizkuntzalari arizkundarra eta EHUko Euskararako erektore-ordea dena, mintzatu zitzaigun. "Biltzarren ibilbideaz eta helburuez: euskara batuaren egungo premiak" gaiaren inguruan azaldu zuen sakoneko kezka: "Batuaren gaineko diagnostikoa egingo du egunotan Euskaltzaindiak". Baina bere hitzetan "hemen auzian dagoena ez da bata-

sunak, hizkuntza bera baizik esan zuen.

Bere iritzian, Euskaltzaindiak "salatu" eta "gaitzetsi" egin behar du "askotan erabiltzen den hizkera txarra, sarriegi, euskara batua izan barik, euskara batuarekin nahasten dena hala ere". "Batasuna euskara onaren gainean eraiki behar baita, sasi egiturak albora utziz", azpimarratu zien Salaburuk parean zituen hizkuntz-adituei.

Legitimazioa ere aipatu zuen Pello Salaburuk. Euskaltzaindiak hartutako erabakiak bazterrean geratzen badira, jai baitu. Baina legitimazioa nahi badu, ezin ditu "erabakiak alegereki eta egun batetik bestera hartu" gaineratu zuen jarraian.

Arratsaldea ere bete-betea izan zen. Ibon Sarasola, 48, hizkuntzalari eta idazle donostiarra, mintzatu zen honako gaiak jorratuz berak ohikoa duen maisutasunez:

Euskaltzaindiaren gomendio-erabakiak (I):

- Agiria euskal hitzei buruz;
- Letra larrien erabilera;
- Deklinabidea: bat/batzuk;
- Nor/nortzuk; zenbakiak eta ordinalak;
- Zenbait aukeraren zergatia: arabera, iritzi, baitu, aurrealde, usain, -zio, arazi; hau guztia, nor-nahi.

Ondoren zenbait txosten azal-

du zitzaizkigun gazte batzuen ahotik, ortografiaz, deklinabideaz eta idazkeraz.

Bigarren eguna, hilak lau, lehenengoa bezain trinkoa eta aberatsa gertatu zen. Lehenengo hizlaria Mikel Zalbide, 43, ingeniari donostiarra, Elhuyar taldeko kide eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Euskara zerbitziburua, izan genuen, eta bere azalpena goi-mailakoa izan zela esan behar dugu. Hitz elkartuen inguruan azken sei urteko lanaren azalpen orokorra egin zuen. Hitz elkartuen inguruko irizpide nagusien azalpenarekin jarraitu zuen eta bukatzeko banan-banako puntuen zerrendatzea, berez, marra-ekin ala loturik idatz daitezkeen hitz elkartuen zenbait kasu azalduz. Horra gaiaren izena:

Euskaltzaindiaren gomendio-erabakiak (II).

Hitz elkartuak: irizpide nagusiak eta banan-banako arauak. Bere azalpenaren harian, maisutasunez agertu zizkigun hitz junturako hots aldaketak: hots legeak; lehen osagaiaren amaiera -a deanean: galdu ala ez; berrelkarke-ta: bereiz idazteko hitz elkartuak; marrarekin idazteko diren hitz elkartuak; loturik idazteko diren hitz elkartuak; marrarekin edo loturik idaz daitezkeen hitz elkartuak. Gai asko argi esanak.

Txosten labur batzuren ondoren (Aditzoina Joanes Leizarra-

gagan, Esther Zulaika, Bizkaieraren aberastasunetarik zeintzuk diren batuan sartu beharrekoak, Juan Luis Goikoetxeak), Patxi Goenaga, 46, azpeitiar filologaria izan genuen hurrengo hizlaria. Gramatikari buruzko batasunerako proposamenak euskara batuari buruz izan zen bere gaia: "Gaur egun, joskeran batez ere, zenbait forma dabilta euskara batuaren izenean elkarren lehian. Euskaltzaindiak oraingoz ezer esan ez duela. "Betiko" eta "betirako" adibidez. Horrelakoe-tan Gramatika batzordeak Euskaltzaindiaren adierazpena eskatuko du, zein den egokia erabaki eta jakinaraz dezala".

Hainbat puntu jorratu zituen il-do horretatik: diptongoz amaitzen diren izenen deklinabidea, partitiboa baiezko perpausetan, hiru kiloko vs. hiru kilotako, ongi etorri ala ongi etorria, orduak eta datak nola adierazi, etab. Azalpenaren izena:

Gramatikari buruzko proposamenak (I).

Batasunerako proposamenak.

Gramatika batzordearen zenbait proposamen euskara batuari buruz:

Diptongoz amaitzen diren izenen deklinabidea; hori eta, hori edo eta horrelakoen idazkeraz; orduak nola esan; ezker / ez-gero; zenbait aditzen erregimena (gonbidatu, iguriki, itxaron, itxoin, deitu); baldintzaren ondorioetako *egingo nuen bezalakoak; betiko*

eta *ekartzea merezi du*; partitiboa baiezko perpausetan; *egiteko asmoz, egin asmoz; zu (izan) ezik*; juntagailuei buruzko gomen-dioak; data nola adierazi; hiru kilo(ta)ko. Hitz gutxitan, gaiak guztiz interesgarriak eta hainbat et hainbat erabakiren zain daudenak.

Arratsaldez Patxi Altuna, 66, jesulagun azpeitiarra, Filosofian, Teologian eta Filologia klasikoan lizentziatua, Etxepareren metri-kaz tesia egina, mintzatu zitzaigun. Gramatikaren gaineko okerrak zuzentzea zen Patxi Altunaren gaia. Oker hauetako askoren jatorria agertu zuen lehendabizi: "Hizkuntzak berezkoa duen denboraren joan- etorrien aldaketez gain, azken urteotan beste aldaketa bat pairatzen ari da: jende ikasiak (irakasleak, idazleak, esatariak...), hobe beharrez, eta oker direlako ustez, betiko esapide jatorrei eragiten dizkieten aldaketak". *Goseak dago* edo *San Ferminetara joatea merezi du* bezalako esaldiak gaizki iruditzen zaizkienez, *joateak merezi du* etab. esaten hasten dira. Gomendio bat luzatu zien horrelakoei: "Egon ia segurua ikasi duzuen ondo dagoela, nahiz eta zuek ondo jakin ez hura zuzena zergatik den".

Honekin batera, gaur egun direnak, batu barik segitzen dute. Euskaltzaindia duela hiru bat urte hasi zen gai hau lantzen, Euskara Batuko batzordeak bere egitekoen artean sartu zuenean. Harrezkero gaia aztertu, proposa-

menak egin, iritzi-emaleei bidali, erantzunak jaso, proposamenak borobildu eta Euskaltzaindiari aurkeztu dira.

Horra egitarauan azaltzen zena gaia:

Gramatikari buruzko proposamenak (II).
Okerrak zuzenduz.

Egun hedatzen ari diren badaezpadako zenbait esamolderi aurre egin beharra:

"Honezkero/dagoeneko; iraun, balio, kosta, luzatu, neurtu, pisatu; bost durotan garestitu; topikoa bihurtu; ez daukazu zertan negar egin beharrik; baita ere / ezta ere; ongi etorri!; bazkaria eta gero / bazkaldu eta gero; hitzaldia medio / hitzaldia dela medio; hobe esan / hobeto (hobeki esan); - tazko; elkar ondo moldatu; galdera itsusietaz; partitiboa eta aditz komunztadura; a bokalarekin amaitzen diren izenen mugagabeko kasuak; -z instrumentalaren zenbait erabilera oker; berri vs. beste bat / beste batzuk; konpletiboen inguruko gora-beherak; baldintzazkoak; konparazioak; guztiei gonbidatzen zaie; kanpo ministroak dimiti lezake". Hitz gutxitan, badagoela zer erabakia eta guk zer zuzendu eta ikasia.

Ondoren atseginez entzun genuen "Beñat Oihartzabal", 45, lapurtar hizkuntzalari eta idazlearen azalpena. Hitanoaz, honek dituen zailtasunak, erabakiak hartu beharrik, zenbaitetan era-

baki horien ondorioz, beste batzuk baztertu beharrak, hau ere, gailurreko lana. Aditz laguntzailea batu zela hogeita bat urte beranduago eta aditz trinko batua erabaki zela hamazazpi urte igaro direnean, Beñat Oihartzabalek aurkeztu zion biltzarrari Euskaltzaindiak hitanoari buruz onartutako proposamena. Aditz alokutiboen parte bat baizik ez da finkatu, hikako moldeari dagokiona. Zukakoak, Zuberoan erabiltzen direnak, batu barik segitzen dute.

Euskaltzaindia duela hiru bat urte hasi zen gai hau lantzen, Euskara Batuko batzordeak bere egitekoen artean sartu zuenean. Harrezkero gaia aztertu, proposamenak egin, iritzi-emaileei bidali, erantzunak jaso, proposamenak borobildu eta Euskaltzaindian aurkeztu dira.

Beñatek ez du uste proposamena berandu datorrenik. "Euskara bizirik eta sendo dagoen tokietan hitanoa erabiltzen da. Egia da ingurumen hori ez duten haurrek ez dutela hitanoa ikasten, baina orain proposatzen den batasunak indar berria eman liezaieke hitanoaren irakaskuntzari eta erabilerari". Bere azalpenaren izena:

Hitanoaz:

"Erregularitasuna, bai/ez; tradizioa / oraingo hedadura; -i bai ala ez (niagok / nagok); nagok / negok eta zagok / zegok; zabilak

/ zabilek; ditiat/dizkiat; / niake / nikek.

37

Ondoren zenbait txosten laburren irakurketa: Hitanoa non eta nork erabiltzen duen, Xabier Alberdiren ahotik; *Neurtu* aditzaren erregimenaz, Iñaki Azkunek; *Neurtu* aditzaren erregimenaz, Julio Garcia eta Martxel Ensunza, J. Ramon Etxebarria eta Kepa Altonagak eta Hitanoa ahozko hizkuntzan Euskal Herriko Hitz Atlasaren arabera Gotzon Aurrekoetxeak.

Asteazkenenean, lehenengo orduan mintzatu zen Miren Azkarate, 39, hizkuntzalari donostiarra. Hiztegegintza izan zen goizeko gai nagusia. Miren Azkaratek LEF batzordeak erator-atzizkiak azterten bi urtetan eginiko lanaren berri eman zuen: "Lan horren ondoren, atzizki bakoitzaren tradizioko erabilera zein izan den eta azken urteotan zertan desbideratu garen jakin ahal izango dugu" baieztatu zigun. Irakurri zuen txostenak, hortaz, erabilera okerrak bildu eta zuzentzeko bideak eskaintzea izan zuen helburu. Lau multzotan sailkatu zituen hitz eratorriak osatzerakoan egindako okerrak eta azaldu egin zituen banan-banan. Horra gaiaren izena:

Hiztegegintza (I)

Eratorpenaz

Zenbait atzizkiren tradizioko erabilera eta azken urteotako desbiderazioak:

Atzizkien lema eta aldaerei da-

gozkien arazoak: ari-kari; ar-tar; go-go; /-garri-karri; gailu-kailu; -gia-gü; -sko-xko; -ska-xka.

Oinarriaren kategoriatik datozen auziak: izena + -ari; izena + -tegi; aditzoina + -tegi; izena + -gailu.

Ez dagokion adiera edo balioa ematek datozen akatsak: -go; -garri; -kor; -kin; -kari.

Erdal mailegu eratorrietatik datozen atzizkiak: -ari (ala -ario ?); -ari (ala -tzaile).

Txosten labor pare bat entzun ondoren Elixabete Perez eta Maria L. Telletxearen ahotik (Mitxelena zine kritiketako hitz elkartuak eta eratorriak) Ibon Sarasolaren hitzaldia. Ibon Sarasola Hiztegi Batuko batzordea egiten ari den lanaren aurkezpena egiten hasi zen. 1968an bi mila hitzeko zerrenda gomendatu zuen Euskaltzaindiak. Sarasolaren ustez, ordua izan daiteke Euskaltzaindiak beste pauso bat eman dezan bide horretatik. "Adibidez, euskarazko zortzi mila hitz maizkoenak batuko bagenitu, euskal testu ez espezializatuek %ko 95etik gorako batasuna agertuko lukete. Hortaz, zortzi mila hitz horientzat era bakar bat edo, proposatzea batasunerantzko bidean urrats garrantzitsuenetako bat izango litzateke" esan zuen. Hiztegi Batuko batzordeak erabili dituen zenbait irizpide zehatu eta gero, berriro gogorarazi zien bilzarkideei gaur egun batasunaren etsairik handiena euskaldunok elkarreganik bereizten gai-

tuen muga politikoa dela. Horra gaiaren titulua:

Hiztegi gintza (II).

Aztergai sistematikoak eta irizpideak:

Hiztegi Batuko Batzordeak orain arte egindako lanaren zerrendak eta jasotako oharren berri eman. Batzordeak, batasunerako formak proposatzerakoan, baliatu duen irizpide sorta.

Arratsaldez euskal metrikaz mintzatu zitzaizkigun Aita Altuna, Juan M^a Lekuona eta Pello Esnal. Gai guztiz garrantzitsua izanik ere, adostasun falta handi samarra nabaritu zen gai honen inguruan. Ez hainbeste, agian, estrofen sailkapenean. Diferentziak puntua ulertzeko alorrean handitzen dira gehienbat. Hiru hizlarien lanak guztiz interesgarriak izan daitezke ondoren egin nahi den metrikari buruzko "esku-liburu" bat argitaratzerako. Asko egin baldin bada, beste hainbeste dagoela egiteko ikusten da.

Horra gaiaren izena:

Euskal metrikaz:

Euskal estrofaz.
Juan M^a Lekuona.

Bertso lerroa
Patxi Altuna.

Puntua bertsolaritzan.
Pello Esnal.

Segidan Andoni Sagarna, 47, idazle donostiarra eta Elhuyar eta Uzeiko partaidea mintzatu

zitzeaun hiztegi teknikoer. 1982an Mitxelenak UZEIri egin-dako kritikari erantzun zion esanez, "Euskal Herriari orga idien aurrean jarri behar dela askotan, gizartearen gertatzen diren aldaketek behartuta". Euskaltzaindiari galdera bat (1984an formulaturiko *Jakintzagai eta bizigune berezituetarako terminologia teknikoa* ea zertan den) eta esakera bat (bere egitura eta lan egiteko moduak desegokiak izanik, goitik behera alda ditzala, alegia) luza-tu zizkion.

Ondoren Andres Urrutia, 39, notario bilbotarra eta Deustuko Zuzenbide Fakultateko irakaslea, hiztegi juridikoaz mintzatu zen. XVIII. eta XIX. mendeetan terminologia juridikoa sortzeko egin ziren ahaleginak aztertu zituen, baita hamabost urteetan eremu horretan emandako aurrerakada ere. Hiztegi juridikoak kontuan izango du Euskaltzaindiak egin-dako bidea.

Segidan irakurri ziren zenbait txosten laburrez, "Hiztegi Batua-ren datu-base lexikografikoa" Jose Antonio Adurizen ahotik, eta "Noiz g(e,i) eta noiz j(e,i) latineko mailegu berrietan" Jose Antonio Mujika jaunak trebeki azalduaz bukatu zen eguna.

Osteguna, hilak 6, goizean Xabier Mendiguren, 49, itzultzaile ezkiotarra, Martuteneko Itzultzaile Eskolako sortzaileetarikoa mintzatu zen, Exonomastika ba-

tzordearen proposamenak, historia eta irizpide nagusiak mintzatu hartuaz. Arlo honen konplexutasuna azpimarratu zuen. "Ezin dugu jarrera erradikalik izan, eta jarrera erradikal moduan esango nuke kanpo onomastika transliterazio hutsez egin nahi izatea dela, esate baterako, izenak jatorrizko hizkuntzan idatzita dauden bezala transkribatu nahi izatea, alegia". Etorkizunerako bidea iraganeko tradizioarekin lotura eginez egin behar dela adierazi zuen, "beti ere beste kultura eta herriekiko zubiak eginez, jakina". Orain artean Euskal Herriari eman diren tradizio biak, Iparraldekoa eta Hegoaldekoa, azaldu zituen. "Bitasun hori gairitu eta batasuna sortu behar dugu hor ere. Urte batzuk behar dira horretarako, baina azpibatzaordeak oso garbi du bide horretatik jo behar dugula".

Tartean bi txosten labur irakurri ziren, bata Alfonso Irigoien jaunak: "Kultura-hitzak euskaraz eta nomina exonomastica scribendi forma in lingua vasconum", eta ondoren Iñaki Irazabalbeitia "Transliterazio taulez".

Goizeko azken azalpena Iñaki Irazabalbeitia, 37, donostiarrak eta Kimika Zientzietan doktore eta Elhuyar Kultur Elkarteko lehendakariak egin zuen. Munduko estatu eta hiriburuen izenak eta munduko akzidente geografiko nagu-

siak izan zituen hizpide. Lau ideia nagusi plazaratu zituen: -Saio berezia egin beharko litzateke euskal exonimo zaharrak (Naiara /Najera edo Ozkabarte/Santo Domingo de la Calzada, kasu) berreskuratzen. -Arauak emateko orduan erraztasunak bilatu behar dira, ahalik eta salbuespen gutxien emanez. -Exonimoak idazteko orduan sistema bikoitza eratu beharko da. Bat eguneroko erabilera arruntean erabiltzeko (Txekhov) eta bestea argitalpen berezietan eta maila akademikoetan (Cekhov). -Tradiziorik gabeko hitzetan kanpoko formak errespetatu beharko dira, behar diren kasuetan premiazkoak diren egokitzapenak egin ez.

Batzordeak onartutako izenen taulak aurkeztu zituen ondoren.

Arratsaldean, lehenengo hitzaldia Xabier Kintanari egokitu zitzaion honako titulupean: "Ponte izenak eta Espania-Frantzietako eskualde-probintzien eta Europako toponimia historikoa".

Ondoren "Euskara batua eta komunikabideak" izenpean mahai-inguru interesgarri eta bizi bat eman zen, honakoak parte hartuaz: Mikel Atxaga, Antton Aranburu, Patxi Petrirena, Igone Etxeberria, Emile Larre eta Joxe Aranzabal.

Azkenik zenbait txosten irakurri zituzten. Amaia bonetak: "Hiri-barrenen Euskaldunak poemako

izen bereziak; Patxi Salaberri: "Nafarroako toponimia nagusia Arazoak; Alan King-ek: "Aditz modalen erabilpena dela eta eta, azkenik Mixel Kalzakortak: Izen arrunt bizigabeen toki-dendborazko deklinabide kasuak Hegoaldeko parte batean.

Ostirala, azken eguna, ez harelere interes gutxiena sortu zuena. Lehenengo orduan, Jose Ignacio Hualde, 36, filologoaren lan magistral bat irakurri zigan Iñaki Gamindek, honako titulupean: "Ahoskera (I). Azentua eta euskara batua. Goi mailako lana, nahiz entzule ginenon artean oraindik arloan geratzen zaigun bide luzearen inpresioa geratu zen.

Ondoren Patxi Altuna mintzo zitzaigun "Hitz pareak" delakoez, non, Aita Villasantek aspaldiko batean esan zuena aurrera eramanaz, hau da azentuaren birtartez bereizten diren hitz homonimoak jorratu zituen. Kasuan gertatzen diren hitz zerrenda bat eman zigun gehiago lituzkeenari berari eskuratzeko gonbitea zabalduaz.

Goiz amaieran Lurdes Oñederraren azalpen bikaina entzun genuen, honako titulupean: "Ahoskera (II). Ahoskera batuzantze?"

Arratsaldean amaiera. Lehenengo, Euskaltzaindiak bere bilkura egin ondoren, mahai inguru bat honako gaia jorratuaz: "Euskara batua eta literatura krea-

argitaratua. Ondoren publikatu zituen beste bi obra: *Gauaren atzekaldean* eta *Bizitza pil-pila*.

Ongi merezitako omenaldia, beraz, ziurrenik segida ere izango duena.

G.E.

ARGIA aldizkariaren 75. urteurrena

Aurten ospatu du "Argia" aldizkariak sortu zeneko bere 75. urteurrena. Urriaren erdialdean eskaini zuen 1.500. ale berezia.

Argia, gaur egun, zenbait pertsona, gazteen eskuetan indartu eta garatu den aldizkari sendo bat bilakatu da. Horren adibide dira ARGIA-k bai teknolo-

gia berria eta bere egoitza berria Lasarte-Orian estrainatu izana. ANTZA inprimategiarekin eta APIKA informatika etxearekin elkarlanean eman dute urrats berri hau, ARGIA-ren hobekuntzan ere nabarituko dena. Gure zorionik beroena eta, nola ez, urte askotarako.

EUSKADI sariak

Gasteizko Gobernuak eta Diputazioek antolatzen duten Euskadi Sari honek lau sari ditu berez, baina urteko bi sari bakarrik konbokatzen dira: iaz nobela eta antzerkia eta aurten saiogintzari eta poesiari egokitu zaie.

Euskaraz zein gaztelaniaz emandako sarien artean, Jon So-
dupe azkoitiarra, saiakeran eta Amaia Iturbide bilbotarra, poesian izan dira aurtengo Euskadi

Literatur sarien irabazleak. Gaztelaniaz, berriz, Eduardo Gil Bera nafarra, saiakeran, eta José Antonio Rodríguez Medeiros orensarra poesian.

Mikel Etxeberria Kultura sailburuordeak adierazi zuenez, partehartzea handitzen ari da urtetik urtera, eta, horrela, aurtengoan, 24 idazlan aurkeztu ziren euskaraz eta 49 gaztelaniaz, horietatik 43 poesian eta beste 6ak saiakeran.